

ARTISTAK BILATZEKO IZARRAK PLAZARA EKIMENEAN IZEN EMATEKO EPEA IREKI DA

5 ETA 17 URTE BITARTEKOEK PARTE HAR DEZAKETE

Izen-emate epea: **Otsailak 15 – Martxoak 17**

Izarrak Plazara 5-17 urte bitartekoei zuzendutako ekimena da, artistak bilatzeko ekimena, eta beraz, musika tresnak jotzea, kantatzea, dantzatzea, antzerkia egitea, txisteak kontatzea, bertsoak kantatzea, magia egitea, zirku ikuskizunak eskaintzea... gogoko dutenek hementxe dute aukera. Helburu nagusia gazteen sormen artistikoa sustatzea da, eta aldi berean, elkarrekin euskaraz ongi pasatzea.

Izarrak Plazara 2012. urtean sortu zen Intxaurrendoko Plazara Goaz euskara elkartearen ekimenez, auzoko Kultur Etxeak lagunduta (Donostia Kultura) eta beste erakunde batzuen babesarekin. Aurten, berriz, Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Donostiako Udaleko Gazteria Sailak hartu dute haiengain ekimena, eta emanaldi nagusiak Olatu Talka jaialdiaren baitan egingo dira.

Programa bi kategoriatan banatuko da, adinaren arabera: 5-11 urte bitartekoak eta 12-17 urte bitartekoak. Partaideek taldeka edo bakarka aurkezteko aukera izango dute eta ikuskizun originala edo moldatua izan daiteke. Ikuskizunak gehienez 5 minutukoak izango dira eta euskaraz izan beharko dute. Aibilezia erakusteko musika lagungarri gisa erabiliz gero, esaterako, dantza egiteko, musika lagungarri hori edozein hizkuntzatan izan ahalko da, baina euskaraz izatea hobetsiko da.

12-17 urteko gaztetxoek martxoaren 17ra arteko epea izango dute izen emateko, eta hori www.olatutalka.eus webgunearen bidez egin beharko dute. Izena ematen dutenek casting bat egin beharko dute apirilaren 7an Kontadoresen, eta horietatik, emanaldi nagusirako 6 bakarlari edo talde aukeratuko dira. Emanaldi nagusi hori Olatu Talka jaialdiaren baitan egingo dute, maiatzaren 21ean. Castingean aukeratutakoek aditu talde baten laguntzaz euren ikuskizunak hobetu ahal izango dituzte, tailer batzuek bidez. **Adituak** ondorengoak dira: **Ainhoa Aierbe** aktorea, **Twin Melody** musika taldea eta **Edu Muruamendiaraz** dantzaria. Tailer horiek, Kontadoresen egingo dira apirilaren 24tik maiatzaren 18ra bitartean.

Bestalde, **5-11 urte bitarteko partaideek ere martxoaren 17ra arteko epea** izango dute izen emateko, baina izen emateko Donostiako Udal Haurtxokoetara jo beharko dute. Parte-hartzaileek entseguak izango dituzte apirilaren 4tik maiatzaren 12ra, euren emanaldia behar bezala prestatu ahal izateko, eta maiatzaren 20an Aiete Kultur Etxean egingo dute azken emanaldian parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango dute entseguetara agertzea. Izen emandako jende kopuruaren arabera egun berean beste emanaldi bat egingo da Etxarrienen.

Partaide guztiek gurasoen edo tutoreen baimen sinatua eraman beharko dute castingaren egunean edo entseguen egunetan (12-17 urtekoentzat baimen inprimakia Olatu Talkaren webgunean dago eta 5-11 urtekoentzat Haurtxokoetan). Informazio gehiago: www.olatutalka.eus webgunean eta Bagera Elkartearen bagera@bagera.eus helbidean edo 943 005 074 telefono zenbakira deituz.